

IKTUS UNITATEAREN FUNTZIONAMENDU-ARAUAK

Neurologia Unitateko taldeak (Santiago Ospitaleko 6-B) ongi etorria eman eta azkar osatzea opa dizue.

UNITATEAREN EZAUGARRIAK

Iktus Unitatea gaixotasun zerebrobaskularren behaketan, zaintzan eta tratamenduan espezializatutako unitatea da.

Unitate mistoa da: honek esan nahi du beharrezkoa izanez gero, logela aurkako sexuko beste pertsona batekin partekatzean beharko duzula. Banantzeko gortina batek gordeko du zure intimitatea.

Bertan zauden bitartean, monitore batera lotuta egongo zara, zure egoera zehatzago zaintzeko (bihotz erritmoa, tentsio arteriala, arnasketa), grabatzen ez duen kamera bisual batera ere. Hala monitoreo nola kamera unitateko langileek kontrolatuko dituzte.

OSASUN TALDEA

Txanda bakoitzean erizain/laguntzaile talde bat arduratuko da zu behatu eta banakako zainketa egiteaz. Mesedez, bere aginduak bete.

Neurologiako mediku taldeak ospitaleratu ondoren, bisita eta informazio medikua emango du. Honez gain, goizeko txandan eta asteko 7 egunetan ere bisita medikua egingo da. Hau dela eta, gomendagarria izango litzateke hurbileko pertsona baten telefonoa zenbakia ematea.

Arrazoi pertsonalak direla-eta, bisitaldian senidea aurrean egongo ezean, posible izanez gero, mesedez, aurretik jakinarazi, Goizeko txandan, 15:00ak arte mediku arduradunak informatu ahal izango du

Gogora ezazu:

Erizain taldeak ez du inolako informazio medikorik emateko baimenik.

Ezin da inolako informazio medikorik eman telefonoz.

BISITAK

ZURE EGONALDIAN ZUREKIN BATERA EGOTEKO SENIDE BAKAR BAT ONARTZEN DA, bigarren pertsona batek laguntzailea ordezkatzeko sartu ahal izango du logelara.

Neurri honen helburua pazienteari atsedeen fisikoa eta emozionala hartzen laguntzea da. Era berean, bisita gehiegi izanda eta alferrikako sarrera-irteerekin gehiegi urduritzea saihestu behar da. Mugikorrek isildu. Sakeleko telefonoa deia jasotzen badizue, mesedez, unitatetik kanpo hitz egin, ahots apalez

GAUZA PERTSONALAK

Erizain langileek emandako botikak bakarrik hartu behar dituzu. Zalantza bat izanez gero, mesedez, kontsultatu.

Hortz-protesia erabiltzen baduzu, ospitaleratzerakoan jakinarazi. Erizaintzako taldeak esango dizu erabil dezakezun edo ontzi egoki batean gorde behar baduzun. Halakorik ez baduzu, zure identifikazioa daraman bat eskainiko dizugu. Betaurrekoak, lentillak, audifonoak erabiltzen badituzu, ez ahaztu kaxarekin batera ekartzea. Arretaz zaindu, galdu ez daitezten.

Norbere burua garbitzeko kit bat ekar dezakezue (bizarra mozteko makina elektrikoa, hortzetako eskuila, orraziak...). krema eta koloniak erabiltzeko aukeraz osasun-langileei galdetu beharko zaie.

Ospitalean balio handiko objekturik ez izatea gomendatzen da. Halakorik ekarri baduzu, senide bati eman.

Bisitariei ere balio handiko objekturik, agerian ez uztea gomendatzen zaie: poltsak, sakeleko telefonoak, adibidez. Logelatik edozein arrazoi dela-eta atera behar baduzu (pazientearen higiena, bisitaldia, probak), aldean eraman.

OTORDUAK:

Langileek emandako elikagaiak eta edariak bakarrik hartu behar ditu pazienteak.

Irensteko gaitasunaren, proben eta abarren arabera pautatutako dietaren berri emango zaizu.

Honako hau da otorduen ordutegia:

Gosaria 09:00etan	Bazkaria 13:00etan	Merienda: 17:00etan	Afaria: 20:00etan
-------------------	--------------------	---------------------	-------------------

ESKERRIK ASKO ZURE LAGUNTZAGATIK